

Udal zergen karga-tasak 2014ko ekitaldirako. Behin betiko onspena

Udalak, 2013ko urriaren 25ean egin osoko bilkuran, 2014ko ekitaldirako udal zergen karga-tasak hasiera batean onestea erabaki zuen.

Karga-tasa horiek jendaurrean egon dira 30 egunez eta ez da erreklamaziorik egon.

Ondorioz, Udal zergen karga-tasak behin betiko onetsizat jotzen dira.

Beran, 2013ko abenduaren 16an.—Alkatea, M.^a Sol M. Taberna Irtzoki.

ERANSKINA

2014. URTEKO UDAL ZERGEN KARGA/TASAK

1. Lurraldeko kontribuzioari % 0,28ko karga-tasa ezartzea.

2. Izaera urbanoko terreneen balio gehikuntzaren gaineko zerga:

Gehikuntza errealaren zenbatekoa finkatzeko Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikulua lauian agertzen diren gutxienezko urteko portzentajeak aplikatzea. Karga-tasa %13a izanen da.

3. Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari % 4,5eko karga-tasa ezartzea.

4. Iharduera Ekonomikoen gaineko Zerga:

1,3 gutxienezko indizea aplikatzea.